



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2019eko UZTAILAREN 16EKO BILKURAKO AKTA**

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2019/07/16

Ordua: 19.30etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Josu Ozaita Azpiroz . Alkatea  
Maribi Garmendia Oyarbide .Zinegotzia  
Juan Mari Iturrioz Goñi .Zinegotzia  
Jaione Olano Etxeberria .Zinegotzia  
Andoni Olano Manzano .Zinegotzia

**AZTERGAIAK:**

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### **GAI ZERRENDA**

- 1.-2019eko ekainaren 15eko bilkurako akta onartzea , hala balegokio .
- 2.-Belarmendiko faktura . San Juan , Ermenta etxeberría eta Irabi azpiko bide bazterrak begiratu
- 3.-Gazteen eskaera aztertu eta dagokiona erabaki
- 4.-Buzoiak herriz gorako herritarrentzako jarri dira eta nola antolatu behar den erabaki .
- 5.-Irabiko bidearen inguruan dagokiona erabaki .
- 6.-San Juango parkearen konponketa lanen berri ematea .
- 7.-2019eko partaidetza egitasmoaren berri eman eta dagokiona erabaki .
- 8.-Ataria komunikabidearen diru laguntza eskaeraren inguruan dagokiona erabakitzea .
- 9.-Tolosaldeko arrarunlarien laguntza eskaera aztertu eta erabaki .
- 10.-Tolosaldeko emakumeen mozioa aztertu eta dagokiona erabaki .
- 11.-Euskaraldiaren berri ematea .
- 12.-Alkateak emandako ebazpenak 2019-24tik 30 era emandako ebazpenen berri ematea .
- 13.-Galderak eta eskaerak



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **1.-2019-06-15 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .**

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2019-06-15ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

## **2.-BELARMENDIKO FAKTURA . SAN JUAN , ERMENTA ETXEBERRIA ETA IRABI AZPIKO BIDE BAZTERRAK BEGIRATU**

2019eko urtean San Juan , Ermenta etxeberri eta Irabi azpiko bide bazterrak eta kunetak garbitzek lanak Belarmendiri eman zitzaizkion 2.037,04 eurotan .

Lanak amaitu dira eta faktura aurkeztu da .

Lanak gainbegiratu dira eta ur kunetak ondo ez direla garbitu ikusi da .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Lanen ordainketa onartzen dela baina kunetak erreparatzeko eskatzea .

## **3.-GAZTEEN ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI**

Herriko gazteek egindako eskera kontutan hartuaz , Korporazioko kideek bilkura aurretik herri gazteekin elkartu ziren .

Korporazio kideek balio anitzeko eraikineko areto nagusiaren ondoan dagoen gela uztea pentsatua zuen, eta aurrez elkarrekin lokala ikusten izan dira .

Eskaeraren aurrean , eta gaurko bisita kontutan hartura , ERABAKI DA :

1.-Balio anitzeko eraikineko lokal txikiena , gazteen erabilerarako uztea .

2.-Lokal honek kanpora duen leiho-ate , sarrera eta irteerarako ate bihurtzea.

3.-Ateari txartelarekin sartzeko modua aztertzea .

4.-Lokalaren erabilerarako arautegia , barne araudia , eta behar den dokumentazioa aztertzea eta hamabost egun barru berriro beraiekin elkartzea .



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

#### **4.-BUZOIAK HERRIZ GORAKO HERRITARRENTZAKO JARRIDIRA ETA NOLA ANTOLATU BEHAR DEN ERABAKI.**

Aurreko legealdian herriz goiko buzoi berriak jartzeko lanak hasi ziren .  
Buzoi horiek orain kokatu dira eta lanak amaitzeko falta diren lanak burutu behar dira .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Esparru etxeko faktura , 1715,78 eurokoa onarpena eman eta ordaintzea .
- 2.-Buzoietan izenak jartzeko lanak udalak egitea , aurrez interesatuekin hitz egin da .
- 3.-Aurreko korporazioak hartu zuen erabakia errespetuaz , buzoi giltza ematearekin batera eta izena jartzearekin batera 30,00 eurotako ekarpena egitea eskatu .
- 4.-Eta gaur egun dagoen buzoi zaharra erretiratzea .

#### **5.-IRABIKO BIDEAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKI.**

Landa bideen diru laguntzaren berri eman da , eta 2019 urtean Irabi eta San Juan bideak eraberritzeko laguntza onartu zela jakitera eman da.  
San Juan bidearen zati handi bat egina dago eta beste zatia exekutatzea falta da . Eta Irabi bidearen inguruan zalantzak agertu dira .

Mahaikideek ERABAKI DUTE .

- 1.-San Juan bidean dauden gune txarrak konpontzeko aztertzea .
- 2.-Irabiko bidearen inguruan , jabeei erabakia hartzeko eskatzea .

#### **6.-SAN JUANGO PARKEAREN KONPONKETA LANEN BERRIEMATEA.**

San Juan parkeko zenbait elementuen konponketa lanak ere aurreko legealdian hasiak ziren. Jolas etxeari konponketa lanen aurrekontua eskatu zitzaion .

Elementu hauek egoera larrian zeuden eta edonorentzako arriskua sortzeko moduan .

Horregatik , lanei lehen bait lehen egitea ekin zaio .

Lanak amaitu dira eta eskatutako lanak bete direla ikusi da .

Lanen faktura , 1327,73 eurotako izan da , aurrekontuaren berdina .

Mahaikideek ERABAKI DUTE .

Jolas etxeak aurkeztu duen faktura onartu eta ordaintzea .

## **7.-2019EKO PARTAIDETZA EGITASMOAREN BERRI EMAN ETA DAGOKIONA ERABAKI.**

Idazkariak partaidetza egitasmoaren berri azaldu du .

Gaia sakonago aztertzeko aditu batekin harremanetan jartzeko geratu da.

Egitasmo honen barruan , , besteak beste proposatu diren gaiak iza dira :

.-0 kilometroa

.-Aldaketa klimatikoa

.....

## **8.-ATARIA KOMUNIKABIDEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .**

Ataria komunikabideak , herriko jaien argitalpenak direla eta 210 eurotako kolaborazioa egitea eskatu dela jakitera eman da .

Eskaera honen aurrean , mota guztietako adierazpena egin dira :

.-Ataria komunikabidea egokia da eskualdearentzako eta hizkuntza garatzeko . Euskaraz irakurtzeko aukera paregabe delako.

.-Kolaborazioak eskatzea ondo dago, baina biderik errazena dela ere ikusten da. Harpidedun gehiago lortzea saiatu beharko lirateke .

Azkenik, mahaikide guztien adostasunarekin ERABAKI DA .

Eskatutako laguntza onartzea eta 210 euroko kolaborazioa egitea, baina horren ordainetan, udazkenean Baliarraingo herrian, hitzaldia bat ematea, Atariaren sorrera, funtzionamendua eta harpidedun berriak bilatzeko saiakera egitea.

## **9.-TOLOSALDEKO ARRARUNLARIEN LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA ERABAKI.**

Tolosako Arraunlari elkarteak , Baliarraingo udalari idatzi bat zuzendu dio, ekarpena egiteko eskaera eginez . Ekarpeneren zenbatekoa, 0,5 euro dira biztanleko eskatzen diena .

Kontutan hartuaz , eskualdeko proiektua dela .

Kontutan hartuaz , 2019eko aurrekontuan kultura sailean ekarpena egiteko disponibilitatea badagoela .



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Lehena.-TAK-ek luzatu duen eskaera ontzat ematea .

Bigarrena.- 2019-01-01 datarekin 138 biztanle biztanle daudenez , 69,00 eurotako ekarpena egitea .

Hirugarrena.-Erabakiaren berri eskatzaileari ematea

### **10.-TOLOSALDEKO EMAKUMEEN MOZIOA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.**

Gai hau tratatu da baina informazio gehiago jaso arte ez da erabakirik hartuko

### **11.-EUSKARALDIAREN BERRI EMATEA.**

Euskaraldiaren berri eman da eta mahaikideek honen ezagutza dute .

### **12.-ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK 2019-24TIK 30 ERA EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Ondoren aipatzen diren ebazpenak eman direla jakitera eman da :

24-2019.-Hainbat ordainketa : 4879,69 €

25-2019.-Guraso elkarteari 1000 euro ematea

26-2019.-Alkate ordea izendatzea

27-2019.-San Juango mobiliarioa konpontzea

28-2019.-Hainbat ordainketa 1994,73 €

29-2019.-Hainbat ordainketa 3492,69 €

30-2019.-Udaleko mobiliarioa erabiltzea

Mahaikideek jakinaren gainean geratu dira .

### **13.-GALDERAK ETA ESKAERAK**

**BAT.-ARRATE IRRATIAREN LAGUNTZA ESKAERA** .Alkateak agertu du , Arrate irratia aldetik herri jaietan kuinak egiteagatik , diru laguntza eskatzen duela . Kuinaren balioa 105 eurotako da, aste betean herriko jaien deia egiteagatik .

Proposamena aztertu da , baina herri jaietarako ez egitea erabaki da .

Aurrerantzean, beste zerbait antolatzen denean egin daitekeela pentsatu da.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

**Bi.**-Saharako haur bat herrira etorri dela eta Tolosako udalarekin hitzarmena bat sinatzea erabaki da , 250 eurotako laguntza onartuaz .

**Hiru.**-Desfibriladorea jartzeko proposamena jaso zuela adierazai du Jaione Olanok . gaia eztabaidatu da , non jarri beharko litzatekeen , eta hasera batetan udalaren sarrerako giltza herritar guztiek dutenez , hor jartzea adostu da. Halere , desfibriladorearen erabilerarako ikastaroak antolatu beharko direla garbi ikusi da . Gaia sakontzeko geratu da.

**Lauro.**-Baso elkarteko bileran izan zela Juan Mari Iturrioz eta pinudietan dagoen gaitzaren inguruko informazioa ematea zela bileraren helburua . Eta horrekin batera birlandaketak egiteko diru laguntzaren deialdia argitara eman dela jakitera eman ziela .

Juan Mari Iturriotzek , herriko basoen planoak ateratzea eskatzen du .

Eta besterik ezean , gaueko 21:30 etan bilera amaitutzat eman zen .

Alkateak

Idazkariak